

Aitaren eguneko "Nolako zura, halako ezpala" lehiaketaren OINARRIAK

Lehiaketa honetan, Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak antolatua (IFK: H20818944 eta ondorio hauetarako helbidea: Almirante Arizmendi kalea 9 – 20.302 Irun, Gipuzkoa), parte hartzeko arau hauek ulertu, onartu eta ontzat ematen dituzte, baldintza orokor hauetan:

Sustapen hau Internet bidez egingo da, Mendibil merkataritza-zentroak Instagrameko sare sozialean duen orrian:

https://www.instagram.com/mendibil_cc

Sustapen honetan parte hartzea doakoa da, eta ez da produkturik erosi behar, ez eta kuotarik edo bestelako zenbatekorik ordaindu ere inongo kontzeptutan.

1 PARTE HARTZEKO DATAK: 2022ko martxoaren 10etik 20ra bitartean parte hartu ahal izango da, biak barne. Martxoaren 20an, 23:59an itxiko da parte hartzeko epea.

2 PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK:

Espainian bizi diren 16 urtetik gorako pertsonak har dezakete parte.

Parte-hartzaileak baztertzea: Edozein parte-hartzaile lehiaketatik kanpo geratuko da, baldin eta Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak uste badu modu irregularrean ari dela, edo fede txarrez, edo lehiaketaren funtzionamendu egokia eragozten duela. Ez da onartuko profil faltsurik erabiltzea, ez eta iruzurrez erabiltzea ere.

3 PARTE HARTZEKO DINAMIKA: Lehiaketa honetan parte hartzeko, parte-hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Mendibil merkataritza-guneko orrialde ofizialaren jarraitzailea izatea instagramen.
- Argitalpenari "Atsegin dut" ematea.
- Zure aitaren antza zertan duzun esatea.

4 SARIA: Hau izango da lehiaketaren irabazlearentzako saria: aisialdi-plana; plan horretan sartzen dira bi zinema-sarrera, OCINE Mendibilen gozatzeko, eta 40 €-ko opari-txartela, merkataritza-guneko jatetxe-arloko establezimenduetan erabiltzeko. Irabazleari 10 €-ko 4 txartel emango zaizkio, merkataritza-zentroko saltoki hauetako edozeinetan erabiltzeko: Ilcapo jatetxea, Virginia jatetxea edo Burger King.

5 SARIA EMATEKO MEKANIKA: Martxoaren 21ean, zozketa bat egingo da parte-hartzaile guztien artean.